

ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTE ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ARRAZOIEN AGERPENA

Animaliak babesteari buruzko Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak gutxieneko esparru juridikoa ezarri zuen, gizakion eta animalien arteko bizikidetza arautzeko, osasungarritasun publikoaren zainketa eta animalianganako errespetua, defentsa eta babesu uztartuz, betiere interes orokorrekin doituak oreaken barruan.

Aipatutako Lege hori argitaratu eta indarrean sartu zenetik, gehikuntza kuantitatibo nabaria izan da animaliak edukitzearen fenomeno sozialean eta, horrekin batera, baita animalien eskubideei eta gizarte-eremu modernoan bizikidetza egokia arautzeko marko zorrotzagoren baten beharrianari buruzko kontzientzia sozialean ere.

Beste alde batetik, arlo honetan arauzko erregulaziorako prozesu sendoa egon da. Horren adierazgarririk garrantzitsuena, seguruenik, animalia arriskutsuak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea izan zen. Izaera arriskutsuko zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako kezkarri erantzun nahian, Lege horrek araubide zorrotza ezarri zuen era horretako animaliak edukitzeari dagokionez, alde aurretik baimena eskuratzeko betebeharra eta animalioi edukitzeko baldintza berezien derrigorrezkotasuna eskatuz, besteak beste.

Hasieran, abenduaren 23ko 50/1999 Legea behar bezala aplikatzeko beharrezko legegintza-garapenik ez zenez egon, gure eremu autonomikoan berariazko arau bat onestearen alde egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeko arauak ematen dituen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua xedatuz, hain zuzen. Beste hainbat gairen artean, «arriskutsuak izan daitezkeen animalien» figura ezarri zuen, zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako aipatutako kezkarri erantzuteko asmoz. Hala ere, arau horren indarraldia arras eztabaidatua izan zen, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu zenean. Dekretu horren bidez abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen zen, Lege horren aplikazio-eremua zehaztasunez mugatuz, neurri handi batean oinarritzko izaerarekin.

Segurtasun juridiko gabeko egoera sortu berria gainditu eta erregulaziorako marko egonkorra finkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu da. Dekretu horrek, berrikuntza batzuekin, aurreko araudia moldatu eta, beharrezkoa izan den kasuetan, hasieran aipatutako animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen testuinguruan kokatu du.

Horren harira, Ordenantza honek prozesu hori guztia bildu eta gaurkotu egiten du, eta animaliak eduki, babestu eta merkaturatzeko arauak ere jasotzen ditu, udal jardueraren eremura egokituz, tresna erabilgarria eta eraginkorra izan dadin batetik

animaliak edukitzearekin eta, bestetik, ondorioz gizarte moderno eta konplexuen markoan gizakiekin elkarbizitzeko fenomenoarekin zerikusia duten alderdi eta jardun-eremuen arteko konplexutasun elkarlotua arautu, kontrolatu eta bertan esku hartzeko.

I. TITULUA **XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua.- Xedea.

Ordenantza honen xedea da, batetik, Zarauzko udalerrian leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea, erroldatutakoak izan ala ez, bertan erregistratutakoak izan ala ez, animalion jabeen edo edukitzaileen bizilekua edozein izanik eta, bestetik, euren eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzea ingurumenaren osasunerako eta pertsonen eta ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako balizko arriskuekin.

Horretarako, tratu, higiene eta zaintza, babes eta garraioari dagokionez animalioek jaso behar dituzten gutxieneko arretak zehazten ditu, eta establezimendu espezializatuetako egonaldi, osasun-laguntza, merkaturatze eta salmentari buruzko arauak ere ezartzen ditu.

Era berean, arriskugarriak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko erregimen juridikoa arautzen du, eta baimenaren beharrez, animalioek edukitzeko baldintza orokorrak eta erregistroen araubidea ere kontuan hartzen ditu.

2. artikulua.- Kanpoan utzitakoak.

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira eta bakoitza dagokion araubide propioaren arabera araututa egongo dira:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Basa-animalien zaintza eta babesaren euren natur ingurunean.
- d) Zezenketak.
- e) Abeltzaintza, gizentzeko animalien hazkuntza gisa ulertuta, kontrola horretarako eskumena duten beste administrazio publiko batzuei badagokie.
- f) Animalioek esperimenterako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabiltzea.

II. KAPITULUA.- DEFINIZIOAK

3. artikulua.- Definizioak.

- 1) Ordenantza honetan etxe-aberetzat hartuko dira bizirik irauteko gizakiaren laguntasuna ezinbestekoa duten animaliak.
- 2) Etxekotutako animaliatzat hartuko dira basoan eta aske jaio arren gizakiok ikustera eta gizakiok lagun izatera ohituta daudenak, eta orain bizirik irauteko gizakiaren laguntasuna ezinbestekoa dutenak.
- 3) Itxian hazitako basa-animaliatzat hartuko dira basoan edo itxian jaio arren gatibualdiko baldintzapean bizi izan direnak, eta ez, gero etxekotuak izan daitezen, ikaskuntzarako baldintzapean.
- 4) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira basatiak izanik etxe-abere gisa edo konpainiako animalia gisa erabiltzen direnak eta, agresibitatea kontuan hartu gabe, gizakiak edo beste animalia batzuk hiltzeko edo gauzei kalteak eragiteko gaitasundun espezie edo arrazatakoak direnak.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira, baita ere, erregelamenduz zehaztutako etxe-abereak edo konpainiakoak eta, bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko I. eta II. eranskinetan zehaztutako txakur-espezieetakoak, eta bertako 10.1.c) artikuluan izaera horretakotzat izendatutakoak.

- 5) Ustiapen-animaliatzat hartuko dira, giza ingurunera egokituak izan ondoren, gizakiari esker bizirik irauten dutenak, betiere irabaziak lortzeko helburuarekin, bai animaliekin eurekin bai animalioi esker lortutako ekoizpenekin.
- 6) Edukitzeko baldintza berezipeko txakurtzat hartuko dira beraien ezaugarri etologikoengatik etxean eduki ahal izateko udal agintaritzak baldintza bereziduntzat izenda ditzakeen txakurrak.

II. TITULUA

ANIMALIAK EDUKITZEAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

I. KAPITULUA.- IZAERA OROKORREKO ARAUAK

4. artikulua.- Betebeharrak

1.- Jabeak higie eta osasun baldintza onetan eduki behar du animalia, aterperako instalazio egokiak, janaria eta edaria, albaitaritza-laguntza eta ariketa fisikorako aukera eman behar dizkio, eta animalia beraren beharrezko fisiologiko eta etologikoen araberako arreta eskaini behar dio, animalia espezia eta arraza kontuan hartuta.

2.- Bereziki, animalien mantenurako gutxieneko baldintza hauek ezarri dira:

- a) Edateko ur eta elikagai nahikoa eta orekatua ematea, nutrizio eta osasun maila egokia izan dezan.
- b) Espazio, aireztapen, hezetasun, tenperatura, argitasun eta aterpe egokia eta beharrezkoak eskaintzea, animaliak inolako sufrimendurik izan ez dezan eta bizitzeko premiei erantzuteko aukera edukitzeaz gain ongizateaz goza dezan.
- c) Bizilekuak garbi, desinfektatuta eta desintsektatuta edukitzea, gorozkiak eta gernua aldi-aldi garbituz.
- d) Ibilgailu batek ezin du animalia ohiko bizitokia izan.
- e) Animaliak ibilgailu pribatua garraiatzeko ezinbestekoa izango da animalientzat nahikoa espazio izatea, aire libretik babestuta, animaliak gidariaren jardunari inolako trabarik egin gabe, trafiko-segurtasuna arriskuan jarri gabe eta ikuspuntu etologiko edo fisiologikotik animalientzat baldintza desegokirik gabe.
- f) Aparkatutako ibilgailuren baten barruan animalia bat utzi bada, ibilgailuak ezin izango ditu egin 4 ordu baino gehiago aparkatuta eta, udan, ahal bada gerizpetan utzi beharko dira, beti ondo aireztatuta.

3.- Animalia jabeak edo edukitzaileak uste badu animaliak gaixotasun kutsagarriren bat izan lezakeela, albaitariari eman beharko dio horren berri eta, albaitariak, eskumendun agintaritzari jakinarazi beharko dio, baldin eta zoonosia dela uste edo hala egiaztatu ahal izan bada.

4.- Albaitariak diagnostikatzen badu animalia batek gizakiak edota beste animalia batzuk kutsatzeko moduko gaixotasun infektaberaduna izan dezakeela eta, haren iritzian, animalia hiltzea komeni bada, sistema eutanasiako baimenduren baten bidez hil beharko da, animalia jabearen kargura.

5. artikulua.- Animalien identifikazioa

1.- Txakurren jabe edo edukitzaileak behartuta daude animalioak identifikatuta eta ohiko bizileku duten udalerriko udaletxean erroldatuta edukitzera; horretarako, hilabeteko epea izango dute, animalia jaio den edota eskuratu duten egunetik hasita. Betebeharra udalerrian modu iraunkorrean bizi diren edo hiru hilabete baino gehiago daramatzaten animalien jabeek izango dute. Betebehar hau, konpainiako beste animalia batzuentzat ere kontuan izan beharko da.

2.- Identifikaziorako, txakurraren lepoaren ezker aldean mikrotxipa edo osagai elektronikoa bat jarriko dio albaitari ofizialen batek, foru edo udal albaitariak, edo animalia txikiak gaitutako albaitari pribatuak.

Inplantazio hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo da, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektrikoen erabilera eta ezar litekeen beste edozein arautan xedatutakoa erregulatzen den.

Animalia identifikatzerakoan, albaitari ofizial edo gaitu jarduleak Kartilla Ofiziala eta animalia-identifikazioarako agiri bat beteko ditu, eta 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren arabera sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) erregistratzeko eskabidea egingo du. Agiri hori eskuragarri izango dute interesatuak albaitari ofizialen edo gaituen bulegoetan. Ale bat lanean diharduen albaitariaren eskuetan egongo da, eta beste bi ale animalia-identifikazioaren jabeak emango zaizkio; aleetako bat Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali beharko du, NANaren fotokopiarekin batera, datuak AIEOan sartu ahal izateko.

3.- Ez erroldatzea, edo epe kanpo egitea, arau-haustea izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari jarraituz.

4.- Animalia-identifikazioaren jabeak AIEOri jakinarazi behar dio erregistro horretako datuetan izandako edozein aldaketa, zehatzean esanda honako baten bat aldatu bada:

- a) Jabeak edota txakurrari buruzko datuen aldaketa.
- b) Jabe aldaketa.
- c) Animalia-identifikazioa ematea, hil egin delako edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eraman delako behin betiko.
- d) Animalia galdu egin delako edo lapurtu egin dutelako.

10 eguneko epean eman beharko da horren berri, baina animalia galdu edo norbaitek lapurtu egin badu, orduan, 48 ordukoa izango da epea, galtze edo salaketa-egunetik kontatzen hasita, eta salaketaren kopia bat erakutsi beharko da.

Aldaketa eskatzeko edo gertakaria jasotzeko, udalean edo foru aldundian, edo gaitutako albaitariaren bulegoetan, eskuragarri egongo den agiria erabiliko da, eta agiri horri NANaren fotokopia bat gehitu beharko zaio. a), c) eta d) puntuetan aurreikusitako kasuetan, interesatuak AIEOra dagokion alea bidali beharko du.

b) idatz-zatien aurreikusitako kasuetan, hau da, salmenta, dohaintza edo indarrean dagoen legerian ezarritako beste moduren bat erabilita eskualdatze bat egiten denean, parte hartzen duten aldeek aldaketa eskatzeko agiria bete beharko dute, agiri horrek zenbaki bat eramango duelarik, eta lau ale bete beharko direlarik. Udal Osasun Zerbitzuak edo aldundiak Kartilla Ofizialean jaso eta ikus-onetsiko du eskualdatze hori, eta erabilitako agiriaren zenbakia ere adieraziko du bertan. Ale bat parte hartu duen erakunde edo albaitariaren eskuetan geratuko da, beste ale bat animalia eskualdatu duenaren eskuetan, eta beste bi aleak, berriz, jabe berriak jasoko ditu. Jabe berri horrek AIEOra bidali beharko du ale bat, eskualdatzea egiten den egunetik kontatzen hasita hilabete baino lehen.

Animalia saldu edo eman ahal izateko betebeharra izango da jabe berriari behar bezala identifikatuta eta erroldatuta dagoen eta Kartilla Ofiziala eguneratuta duen animalia entregatzea.

Artikulu honetan adierazi diren erroldatzeari buruzko aldaketak Erregistroari ez jakinaraztea arau-haustea izango da, animaliak babesteko Legearen 27.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua .- Edukitzeko baldintzak

1.- Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaaren edukitzailea izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoan erantzulea.

2.- Animaliaaren edukitzaileak beharrezko neurriak hartu beharko ditu haren gorozkiak bide eta espazio publikoetan geratu ez daitezen.

Idatz-zati honetan ezarritakoa betetzen ez dena arau-hauste arintzat joko da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, 34-4-c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori guztia, aipatutako legeak baimendutako neurri osagarriak erabakitzeke aukeraren kaltetan izan gabe.

3.- Erroldatua edota erregistratua egon behar duen animaliaaren edukitzaileak berak, edo berorrek baimendutako norbaitek salatu behar du, hala balitz, animalia galdu izana.

7. artikulua.- Edukitzeko mugak

1.- Izaera orokorrarekin, baimenduta dago etxe-abereak edo etxekotutakoak ohiko bizilekuan edukitzea.

2.- Eskumendun udal agintaritzak mugak jarri ahal izango dizkio animaliak edukitzeko baimenari edota eduki ahal den animalia-kopuru maximoari, animalion bizitokiaren ezaugarriak, instalazioen egokitasuna, eta higie eta osasun baldintzak kontuan hartuta, eta auzokoentzat edo beste edozeinentzat, edo animaliaarentzat berarentzat edo beste batzuentzat, egoera arriskutsu edo eragozpenen bat eragin dezaketen kasuetan.

Udal agintaritzak animaliak edukitzeari buruzko gorabeheren informazioa eta dokumentazioa, edo animalia bera erakusteko eskatu ahal dizkio interesatuari. Eskari hori ez betetzea arau-hauste larritzat joko da ordenantza honetako 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

8. artikulua.- Abandonatutako animaliak

Abandonatutako animaliatzat hartuko da jatorriaren eta jabearen inolako identifikaziorik gabe egoteaz gain bakar-bakarrik dabilena, edo identifikazioa aldean eraman arren jabeak edo baimendutako pertsonak animalia galdu izana salatu ez duena.

9. artikulua.- Nola jardun animalia abandonatuen kasuan

1.- Administrazioak bilduko ditu abandonatutako animaliak, horretarako zerbitzu propioaren edo itundutakoren baten bidez. Animalia atzeman eta garraiatzeko erabilitako baliabideen higie eta osasun baldintzek egokiak izan beharko dute eta ez diote animaliarri alferreko sufrimendurik eragingo.

2.- Aurreko puntuan aipatutako animalia horiek animaliak biltzeko zentroan egongo dira legeak ezarritako epean (30 egun). Jabeak animalia berreskuratu nahi izango balu, jabea dela egiaztatzeaz gain, animalia mantenua eta egonaldiगतिको gastuak ordaindu beharko ditu.

Animalia osasun egoerak, arriskugarritasunak edo sufrimenduak hala eskatzen duten kasuetan, aipatutako zerbitzuko albaitariaren iritzia kontuan izanda, epea 24 ordura laburtu ahal izango da.

3.- Epe hori agortu ondoren, identifikatu gabeko animalia inork berreskuratu ez badu, honako neurriren bat hartu ahal izango da: animaliaz jabetu, hala eskatu eta, Ordenantza honetako I. eranskinean jasotako moduan, animalia osasun egoera administratiboa erregula dezanari utzi edo, azken aukeran, sakrifizio eutanasiakoa gauzatu.

Edozein unetan, konpainiako animalien zaintza beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen esku utzi ahal izango da behin-behingo.

4.- Animalia identifikatuta badago, jabeari jakinaraziko zaio, froga eta guzti, animalia jaso edota hartu egin dela, eta jabeak zazpi egun baliadun izango ditu animalia berreskuratzeko, animalia zentro horretan edukitzeak eragin dituen gastuak ordaindu ondoren. Epe hori igaro eta jabeak animalia berreskuratu ez badu, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa egingo zaio txakurrari.

5.- Animalia hiltzeko, kontzientzia berehala galaraziko dion prozeduraren bat erabiliko da, inolako sufrimendurik eragiten ez duena, albaitari baten kontrol eta erantzukizunpean.

10. artikulua.- Kaleko animaliak

1.- Animaliek gizakioi eta ondasunei eragin liezazkiguketen eragozpenak edota arriskuak ekiditeko, herritarrek udal osasun zerbitzuei jakinaraziko diete kaleko animalien edo abandonatutako animalien presentzia.

2.- Debekatuta dago bide publikoan eta orubeetan hegazti, txakur, katu eta kaleko beste edozein animalia janaria ematea, hartarako berariazko baimen gabe.

Idatz-zati honetan jasotakoa ez betetzea arau-hauste arina izango da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.4.c) artikuluan esandakoari jarraituz, Legeak baimendutako neurri osagarriak ezartzearen kaltetan izan gabe.

3.- Hiri-habitateko edo kontrol gabeko animalia-espezieen ugalketak hala justifika dezakeenean, udal agintariek beharrezko neurriak hartuko dituzte animalia horien populazioa kontrolatzeko.

11. artikulua.- Hildako animaliak jasotzea

Udala, bere baliabideen arabera eta SOS-DEIAK larrialdi-zerbitzuekin, Foru Aldundiarekin, Itsasertz-mugartearekin, Osasun sailarekin eta garbiketako enpresekin koordinatuta, animalien hilotzak jasotzen saiatuko da, ze animalia mota den eta udal-mugapean non azaldu den kontuan hartuta dagokion erakundeari igortzeko.

12. artikulua.- Nola jardun animaliak eraso egin badu

1.- Animalia batek norbait eraso izanaren salaketa jaso edo horren berri daukan udal zerbitzuak eraso egin duen animalia edota haren jabea identifikatzen lagunduko duen datu oro bilduko du salatzailearengandik edo gertakarien jakinarazpena egin duenarengandik, eta berehala jarriko ditu datu horiek administrazio-espeditentzaz arduratuko den agintaritzaren eskuetan, alegia, txakurra erroldatuta dagoen eta, halakorik ezean, jabea bizi den udalerriko udalaren eskuetan, eta dokumentazio guztia udal horretara eramango da.

2.- Erasotzerakoan hozka egin badu eta horrek lesioren bat sortu badu, erakunde eskudunak espedientea ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta foru aldundietako abere osasuneko zerbitzuei.

Lesioak eragin dituen animalia jabeak 24 ordu izango ditu animalia berak aukeratutako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko; animaliak, txakurra bada, behaketan egon beharko du hamalau egunez, baina egun-kopuru hori aldatu egin ahal izango da beste animalia batzuen kasuan edo unean uneko baldintza epizootiologikoei hala gomendatzen badute, betiere, txosten tekniko batek hartarako arrazoiak ematen baditu. Hozka egin eta 24 orduen epe hori igaro, eta jabeak txakurra albaitariarengana borondatez eraman ez badu, eskumena duen udal agintaritzak

eraman dezan eskatuko dio, eta animaliak jasotzen dituen zentro batean sartzeko edota isolatzeko agindu ahal izango du (II. Eranskina).

Errekerimendu hau ez betetzea arau-hauste larria izango da ekainaren 26ko 8/1997 Legeko —Euskadiko Antolamendu Sanitarioa— 36.2.b.1 artikuluan jasotakoari jarraituz, eta han esandakoa bermatzeko kautelazko neurriak hartzearen kaltetan izan gabe. Dena den, egindako txostenaren edo egiaztagiriaren kostua animalia jabeak edota edukitzaileak ordaindu beharko du. Animaliak jabe edo edukitzaile jakinik izango ez balu, gertakarien berri jaso duen udal zerbitzua arduratuko da animalia jaso eta behaketan jartzeaz. Behaketaren berri eman beharko dio espedientea tramitatzeko eskumendun udalari gertaerak izan eta 72 orduko epea baino lehen.

Albaitariak behaketa egingo du zoonosia izateko arriskua dagoen ala ez ikusteko eta animalia izaera arriskutsua izan daitekeen ala ez ebaluatzeko eta, III. eranskinean dagoen ereduari jarraituz, emaitzari buruzko egiaztagiria/txostena bidali beharko du. Jabeak edota edukitzaileak, behin animalia behaketa egin zaionean, 48 ordu izango ditu albaitariaren egiaztagiria/txostena bidaltzeko espedientea izapidetzen ari den udalari —lehen paragrafoan adierazitakoari—, udal horrek espedientean sar dezan. Udalak, dagokion foru aldundiko Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzura bidali beharko du kopia bat. Behaketa hori egin ondoren arrisku sanitarioa dagoela ikusten bada, horretan diharduen administrazioak txakurra zentro batean sartzeko edota isolatzeko edo, egoera horretan egonez gero, berdin jarraitzeko agindua eman dezake.

3.- Erasotzerakoan hozkadarik egin ez bada, jabeak edo edukitzaileak berak nahi duen albaitari ofizial edo gaitu batengana eraman beharko du txakurra; albaitariak animalia izaera arriskutsua den ala ez ebaluatuko du nahi duen denboran, eta egiaztagiri bat emango du. Jabeak espedientea izapidetuko duenari bidali beharko dio egiaztagiri hori

13. artikulua.- Debekuak

1.- Erabat debekatuta dago:

- a) Animaliei tratu txarra ematea, edo arrazoirik gabe sufrimendua, mina edo larritasuna eragin liezaieketen edozein jarduerapean jartzea.
- b) Abandonatzea.
- c) Era berean, debekatuta dago Ordenantza honetan kontuan izandako edozein animalia-espezietako gorpuak bide publikoan abandonatzea eta, halakoren bat ikusiz gero, gorpuaren berri eman beharko zaio dagokion udal zerbitzuari egoera horietarako bidezkoa dena erabaki dezan.
- d) Bizirik irauteko beharrezko elikadura ez ematea edota higiene eta osasun ikuspuntutik desegokiak diren establezimenduetan edukitzea.

- e) Animaliak mutilatzea, exigentzia funtzionalengatik edo arrazaren ezaugarriak mantentzearren beharrezkoa den kasuetan albaitariaren kontrolpean egindakoak salbu.
- f) Drogak edo botikak ematea, edo animaliarengan kalte fisiko edo psikikoak eragin liezazkiokeen manipulazio artifizialak gauzatzea, lehiaketa baterako errendimendua handitzeko izan arren ere.
- g) Euren izaerarako berezkoak ez diren jarduera edo jokabide desegokietara, edo tratu laidogarrietara behartzea.
- h) Animalien arteko borrokak eratzea.
- i) Animaliak bide publikoan hiltzea, behar gorri edo ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- j) 14 urte baino gazteagoi edo pertsona ezgaiei animaliak saldu, dohaintzan eman edo uztea haien guraso-agintea edo tutoretza dutenen baimenik gabe.
- k) Animaliak kalez kale saltzea edo bide publikoan lagatzea, azoka edo merkatu baimenduetan izan ezik.
- l) Animaliak administrazioaren kontrolpetik kanpoko laborategi edo klinikei saltzea.
- m) Animaliak publizitaterako apeu, sari edo eskupeko gisa dohaintzan uztea, haien kostu bidezko transakziotik eratorritako negozio juridikoetan salbu.
- n) Espezie babestuetako animaliak saltzea, eta dagokien berariazko legeriaren arabera eduki eta erakustea.

2.- Era berean, berariaz debekatuta dago:

- a) Fabrikazio, salmenta, biltegiratze, garraio eta elikagaien manipulaziorako erabiltzen diren lokal edo ibilgailuetan animaliak sartzea eta bertan edukitzea, osasun agintaritzak hartarako baimena eman ezik.
- b) Ikuskizun publikoak dauden lokal, esparru eta espazioetan animaliak sartzea eta bertan edukitzea, baita igerileku publiko, lokal sanitario eta antzekoetan ere. Ezin izango dira sartu edo eduki hondartzetan eta jendetzak dauden heziketa, kultur edo aisialdirako establezimenduetan ere, baldin eta euron arau espezifikoek debekatzen badute.
- c) Herritarrentzat irekita dauden bestelako establezimenduetako titularrek ere animaliak euren establezimenduetan sartzea eta bertan egotea debeka dezakete; debeku hori argi eta garbi adierazi beharko da sarreran.

- d) Komunitate batenak diren leku pribatueta –kultur elkarteak, jolaserakoak, auzo-komunitate baten gune komunak,...– animaliak sartu eta bertan eduki ahal izango dira, baldin eta leku horretako arauak horretarako eskubidea aitortzen badute, betiere ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 4. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.
- e) Animaliak ezin izango dira balkoi, garaje, pabiloi, soto, azotea, lorategi edo beste edozein hiri-lokal edo hiri-lursailtan ohituraz eduki edo estabulatu, animalioak eragozpen objektiboak eragiten badizkie auzotarrei edo oinezkoei.
- f) Animalia etxekotuak ezin izango dira ohituraz eduki estabulazio edo erdi-estabulazio erregimenean parke eta lorategi publikoetan ez hiritar gisa kalifikatutako lursailtan.
- g) Konpainiako animaliak igogailuetan jaitsi edo igotzeko, bertan ezin izango da beste inor egon, barruan daudenek hala eskatuko balute.
- h) Herritar ugari dabilen aire zabaleko espazioetan edo jendearentzat irekitako lokaletan ezin izango da ezein espezieta animaliarik aske utzi. Are gutxiago arriskutsuak izan daitezkeen animaliak, basa-animaliak edota animalia kaltegarri edo hezigaiztat jotakoak, hartarako apropos zehaztutako baldintzetatik edo bereziki prestatutako esparru, gune edo parke zoologikoetatik kanpo.

14. artikulua.- Salbuespenak

1.- Orain arteko artikuluetan xedatutakoa kontuan hartu behar den arren, itsu-txakurren laguntzarekin dabilzan ikusmen urriko pertsonak sartu ahal izango dute txakurra leku, ostatu, establezimendu, lokal eta garraio publikoetara. Erreferentziazko establezimenduen artean daude ospitale publiko zien pribatuak, bai eta osasun laguntzarako beste zentro guztiak ere.

2.- Ikusmen urriko pertsonak, alde aurreko errekerimenduz, animalia itsu-txakurra dela egiaztatzen duen agiria erakutsi beharko du, eta dagozkion osasun errekerimenduak betetzen dituela egiaztatzen duena ere bai.

3.- Itsu-txakurrak gaixotasun, agresibitate, garbitasunik eza edo, orokorrean, herritarrentzako arriskutsua izateko itxurarik badu, ezin izango du aurreko artikuluan zehaztutako lekuetara sartu.

II. KAPITULUA.- TXAKURREI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK

15. artikulua.- Araubide orokorra

Txakurrentzat aplikatzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko uztailaren 1eko 101/2004 Dekretuan, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege-Dekretuan, eta aplikagarri diren beste araubide guztietan jasotakoak, eta aurreko tituluetan jasotakoa eta, bereziki, identifikazioari eta erregistroari dagokion guztia.

16. artikulua.- Bide publikoan txakurrak edukitzea

1.- Hiri barruko bide, esparru eta gunee publikoetan, bai eta higiezin kolektiboetako toki komunetan ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira euren ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta – gehienez, 2 metrokoa –.

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren kasuan derrigorrezkoa izango da euren tamainara egokitutako muturrekoarekin eramatea; bai eta udal aginteak hala agintzen duenean ere, zirkunstantziek hala gomendatzen badute eta horiek dirauten bitartean.

2.- Debekatuta dago txakurren gorozkia bide publikoetan, hondartzan, haur-parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea.

3.- Ez dira lorategizat hartuko lorerik edo landarerik gabeko berdeguneak, baldin eta bertan hurrek ez badute jolasten, edo oinezkoentzako pasealeku ez badira, hala nola zelaiak, galtzada bereizleak, mazelak edo belardiak. Edonola ere, utzitako kaka-hondarrak animalia daraman pertsonak jaso beharko ditu; berau izango da, eta haren orde z jabea, araua ez betetzearen erantzulea.

4.- Salbuespenez, urriaren 12tik Aste Santuaren hasiera arte baimenduta dago hondartzan eta inguruko zonetan (Iñurritzako biotopoa, itsasertzeko pasealekua, Desertu Txikia) txakurrak edukitzea. Gainerako urtarotetan, hau da, Aste Santutik urriaren 12ra birtarte, baimenduta dago 21:00etatik 06:00etara txakurrak egotea baldin eta kate edo uhal bati lotuta badoaz eta beren zaintzaileek edo jabeek txakurrak utzitako gorozkiak jasotzen badituzte.

III. KAPITULUA.- ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK

17. artikulua.- Araubide orokorra

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei, Ordenantza honetako 3. artikuluan zehaztutakoei, aplikatzekoak izango dira arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, lege hori garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege-Dekretuan, eta aplikagarri gerta litekeen beste edozein araubidetan jasotakoak.

18. artikulua.- Lizentzia

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen babesean animalia arriskutsutzat sailkatutako edozein animalia eduki ahal izateko, administrazio-lizentzia lortu behar da, eskatzailea bizi den udalerriko udalak emango duena edo, bestela, salerosketa edo txakurraren trebakuntza egin deneko udalak –bizi den udalean horren berri eman ondoren–, betiere aurrez, gutxienez honako betekizun hauek betetzen direla egiaztatu ondoren:

- a) Adinez nagusi izatea.
- b) Hilketa, lesio edo torturengatiko, askatasunaren edo osotasun moralaren, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurka egiteagatiko, edo talde armatu edo narkotrafikatzaile batekin lotura izateagatiko delituengatik kondenatua ez izatea, eta ebazpen judizial batek arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko eskubidea kenduta ez izatea.
- c) Arriskutsuak izan daitezkeen animalien araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.3 artikuluan adierazitako zehapen osagarririk jaso ez izana, arau-hauste larria edo oso larria egin izanagatik. Lizentzia denbora baterako kendu izanak ez du esan nahi, hala ere, lizentzia gehiago eskuratzetik edo berritazetik izango ez denik; hori bai, lizentzia eskatzerakoan, osorik beteta izan behar da aurreko zehapena, alegia, lizentziarik gabe egon beharreko aldiak bukatuta egon behar du.
- d) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eduki ahal izateko ahalmen fisikoa eta gaitasun psikologikoa izatea.
- e) Hirugarren batzuentzako kalteengatiko erantzukizun zibileko aseguru formalizatuta izatea, estaldura ehun eta hogeita mila eurotik (120.000) gorakoa izanik.

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek, ekainaren 1eko 101/2004 dekretuko 13-3-e) eta 12. artikuluetan jasotakoarekin bat, aurreko idatz-zatian

ezarritako baldintzapeko aseguru formalizatzear gain, animalia identifikatzen den egunetik hasita hamar eguneko epean kontratatu beharko dute aseguru hori, dagokion erregistroan sartu baino lehen.

Aseguru hori beste aseguru batzuen barruan egon daiteke, baina edozein kasutan ere, kontratazioak egiaztagiri baten bidez onetsita egon beharko du, aipatutako 101/2004 dekretuko III. eranskinean jasotako ereduaren arabekoaren bidez. Egiaztagiria aseguru-konpainiak egindakoa izango da. Bertan, aseguruak babestutako txakurraren identifikazioari berariazko erreferentzia egingo zaio eta aseguruaren efektu-data eta mugaeguna zehaztuko dira.

Txakurraren jabearen ardura izango da animalia bizi den artean erantzukizun zibilerako aseguru horren babespean edukitzea eta aseguru indarrean mantentzea, horretarako beharrezko berritzeak eginez, hala behar denean.

f) 1.- idatz-zati honetako b) eta c) paragrafoetan ezarritako betekizunak dagozkien erregistroek egindako egiaztagiri negatiboen bidez erakutsiko da. Ahalmen fisikoa eta gaitasun psikologikoa lehen ere aipatutako martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz lortutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira.

2.- Lizentzia administratiboa, interesdunak eskatuta, eskumena duen udal organoak eman edo berrituko du, 50/1999 Legean xedatutakoari jarraituz, aurreko idatz-zatian ezarritako betekizunak egiaztatu ondoren.

3.- Lizentzia bost urterako izango da eta berritu egin ahal izango da iraupen bereko segidako aldikadatan. Hala ere, lizentziaren indarraldia galdu egingo da aurreko idatz-zatian ezarritako edozein betekizun betetzen ez denean. Lizentzian ageri diren datuetako edozein aldatzen bada, titularrak eskumena duen organoari jakinarazi beharko dio aldaketa gertatzen den egunetik zenbatzen hasita hamabost egun baino lehen.

4.- Bide judiziala edo administratiboa erabiliz emandako administrazio-lizentzia bati kautelazko neurriak ezartzen bazaizkio edo lizentzia hori kentzen bada, ez da izango beste lizentzia berririk ematerik edo lizentzia bera berrituz, harik eta egoera hori aldatu arte.

5.- Artikulu honetako 1. paragrafoan eskatutako betekizunak bete gabe emandako lizentziek ez dute inolako baliorik izango eta, beraz, titularrak ez duela lizentziarik ulertuko da.

19. artikulua.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa

1.- Lizentziaren titularrari dagokio txakurra arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan sartzeko eginbeharra, lizentzia eskuratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamabost eguneko epean.

2.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroari jakinarazi beharko zaio animalia salmenta, eskualdaketa, dohaintza, lapurreta, heriotza edo galeraren berri, hala jasota utziz dagokion erregistro-orrian.

3.- Arriskutsua izan daitekeen animalia Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste udalerrri batera lekualdatzeko, betiko edo hiru hilabetetik gorako aldikadarako, jabeak ezinbestean egin beharko ditu dagokion inskripzioak udal erregistroetan.

4.- Animalia titullarrak artikulua honetan agindutakoa betetzen ez badu, dagokion zehapen administratiboa egingo zaio, 50/1999 Legeko 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

20. artikulua.- Segurtasun neurriak

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabe, hazle edo edukitzaileek indarrean dagoen legerian hiritarren segurtasunerako ezarritako arau guztiak betetzera derrigortuta daude, animalia horien eta gizakion arteko elkarbizitarik hoberena bermatzeko xedez eta biztanleriari ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko.

2.- Arriskutsuak izan daitezkeen txakur horiek euren tamaina eta arrazarentzako egokia den muturrekoarekin eraman behar dituzte; halaber, bi metro baino luzeagoa ez den eta luzatu ezinezkoa den kate edo uhal gogor bati loturik joan beharko dute; inolaz ere ez dira lotu gabe ibiliko, eta pertsona batek ezingo du txakur horietako bat baino gehiago eraman. Arnesak erabiltzea debekatuta dago.

3.- Txakurren jabe, hazle edo edukitzaileek txakurrak eraso egin duela jakin badakite, edo txakurra arriskutsua izan daitekeela uste badute, Udalari balorazio bat egiteko eskatuko diote, eta hark aitortuko du txakurrak izan dezakeen arrisku-maila. Eskatzaileak ordaindu beharko du txostenaren kostua; baina animalia arriskutsua izan daitekeela adierazten bada, txakurraren jabea ordainarazi ahal izango zaio.

Arriskutsua izan daitekeen txakur baten jabeak dagokion legedian jasotzen diren neurriak betetzen ez baditu, udal-aginteak kautelazko neurriak ezarri ahal izango ditu, eta aurreikusita daukan zentro batera eramango du txakurra.

4.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak leku edo espazio publikoetan egoteko animalioi daramatzanak eta kontrolatzen dituenak aldean eraman beharko ditu Ordenantza honetako 18. artikuluan aitatutako lizentzia administratiboa eta animalia hori arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan izena emanda daukala egiaztatzen duen ziurtagiria.

5.- Etxalde, landetxe, txalet, lursail, terraza, patio edo beste edozein leku mugatutan dauden eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliek lotuta egon beharko dute, baldin eta leku horietara sartu edo hurbildu daitezela lagunak eta animaliak babesteko besteko azalera, altuera eta itxitura egokidun lekuan ez badaude.

6.- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien hazle, hezitzaile eta salerosleek animaliak edukitzeko instalazio eta baliabide egokiak izan beharko dituzte.

7.- Arriskutsua izan daitekeen animalia lapurtu edo galtzen bada, titularrak gertakari horren berri eman beharko dio arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroko arduradunari, gertaeraren berri izan eta, gehienez, berrogeita zortzi orduko epea pasatu baino lehen. Erasoerik gertatuz gero, berehala jakinarazi beharko da.

21. artikulua.- Salbuespenak

Jabeak zenbait betekizunetatik salbuetsi ahal izango dira, baldin eta inguruabarrak kontuan izanik, halaxe komeni bada. Honako kasu hauetan gerta daiteke hori:

- a) Animaliak funtzio sozial batekin erabiltzen dituzten erakunde publiko edo pribatuak direnean.
- b) Ganadua zaintzeko, babesteko eta maneiatzeko, bai eta jarduera zinegetikoetarako ere, txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritzako ustiategiak direnean. Txakur horiek ezingo dute 50/1999 Legean jasotako legez kontrako ekintzatan jardun.
- c) Lan eta kirol arloko probetan parte hartzeko aukeratu behar diren txakurrak direnean; erakunde eskudunak baimendu eta ikuskatuko ditu txakur horiek. Indarrean dagoen araudian eta Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, ez dira onartuko borroka eta erasoetan parte hartu behar dutenak.

22. artikulua.- Garraioa

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien garraioa animalien ongizateari buruzko berariazko araudiari jarraituz egin beharko da, eta inguruabarrek eskatutako neurri prekautorioak hartu beharko dira, garraialdian eta zamalanetan pertsonen, ondasunen eta beste animalia batzuen segurtasuna bermatzeko.

III. TITULUA ANIMALIEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK

I. KAPITULUA.- GUNE ZOOLOGIKOAK

23. artikulua.- Araubide orokorra

1.- Animaliak jasotzeko establezimenduek foru organoen menpeko albaitaritza zerbitzu ofizialen kontrolpean egon beharko dute. Edonola ere, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Foru Aldundietan egongo den Erregistroan inskribatuta egotea.
- b) Erregistro liburu bat eramatea, behar bezala betea, eta bertan, establezimendu horretan izandako animalien alta eta bajei buruzko datuak agertuko dira, baita beste edozein xehetasun ere, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Departamentuak arauz ezartzen duena.
- c) Helburu horiek lortzeko higiene eta osasun arloko baldintza egokiak betetzea.
- d) Beharrezko albaitaritza-laguntza edukitzea.

2.- Zentro hauetan zorrotz bete beharko dira bertan dauden animalien artean kutsadurak eragozteko neurriak.

24. artikulua.- Gune zoologikoak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuan ezarritakoak edo haren ordeztu ezarritako beste edozeinek arautuko ditu gune zoologikoak.

2.- Era berean, aldeztu aurretik udal lizentzia eskuratu beharko dute, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorretan eta lizentzia hori eskuratu beharrik ez duten jardueren zerrenda jasotzen duen 165/1999 Dekretuan eta aplikagarri diren gainontzeko araudietan zehaztutakoen arabera.

25. artikulua.- Haztegiak, salmentarako establezimenduak eta animalien aldi baterako mantentzerako zentroak

1.- Animaliak hazi edo saltzea xede duten establezimenduek, bai eta aldi baterako animaliak edukitzea xede duten egoitza, heziketa zentro eta bestelako instalazioek ere, ondorengo baldintza orokorrak bete beharko dituzte, aplikatu beharreko gainerako xedapenek eskatutakoari utzi gabe:

- a) Eskumena duen Gipuzkoako lurralde historikoko foru organoaren baimena edukitzea
- b) Administrazio eskudunen eskueran egongo den erregistro-liburua eramatea, bertan dauden animaliei buruzko datuak jasoko dituen, bai eta dagokion departamentuak establezimendu, zentro eta animaliei buruz arauz ezartzen dituen kontrolak ere.
- c) Higiene eta osasun arloko baldintza onak eta bertan ostatu ematen zaien animalien eginbehar fisiologikoei egokitutako lokalak edukitzea.

- d) Albaitaritza zerbitzu baten laguntza izatea.
- e) Zakurren heziketa mota desberdinei dagokienez, eskumena duen Gipuzkoako lurralde historikoko foru organoaren baimena edukitzea.

2.- Egoitzek, heziketa zentroek eta konpainiako animaliak aldi baterako edukitzea xede duten bestelako establezimenduek, aurreko artikuluan xedatutakoaz gainera, ondokoa bete beharko dute:

- a) Animalia sartzen den unetik zentroko albaitaritza zerbitzuak bere osasun-egoera erabaki artean, animalia hori isolatuta edukitzeko instalazio egokiak edukitzea.
- b) Animaliak beren jabeen osasun berme egokietan itzultzea.
- c) Animalia bat bere zaintzarako baimenduta dagoen establezimendu batean uzten duen jabeak bere baimen osoa emango du animalia biziarentzat premiazko arrazoiengatik egin beharreko edozein albaitaritza-jarduketa burutzeko, esandako jabe horrekin komunikatzeko inolako aukerarik ez dagoenerako.

26. artikulua.- Erregistroa

1.- Animaliak hazi edo saltzeko establezimenduek animalien sarrerak eta irteerak adierazi beharko dituzte 25. artikulua aitaz duen erregistro liburuan. Era berean, saldutako animalien zerrenda bat bidali beharko dute hiru hilean behin Udaletxera, beren jatorria, espeziea, arraza eta erosleak adieraziz.

2.- Gainera, hazkuntzarako establezimenduek umealdi kopurua nola maiztasuna eta lortutako ume kopurua jaso beharko dute erregistro horretan.

IV. TITULUA IKUSKAPENA ETA KONTROLA

27. artikulua.- Ikuskapena eta kontrola

1.- Ordenantza honetan araututako gaien ikuskapena eta kontrola udaltzainek edo beste funtzionario batzuek egin ahal izango dute; eurok agintaritzaren agenteak izango dira eta akta egin ahal izango dute (non interesatuak bere desadostasuna adierazteko aukera izango duen). Akta hori interesatuari jakinaraziko zaio salaketa akta edo buletinaren bidez, eta eskumena duen udal organoari bidaliko zaio, beharrezko jotzen dituen neurriak har ditzan eta, behar izanez gero, zehapen espedientea abiaraz dezan.

2.- Arau-haustea delitu edo hutsegite izan daitezkeenean, zehapena ezartzeko eskumena duen organo administratiboak jakinaraziko dizkio gertatutakoak jurisdikzio

penalari, eta zehapen-prozedurarekin jarraitzeari uko egingo dio ebazpen judizial irmoa ebazten ez den bitartean eta, orduan, ordura arte etengo da preskripzio-epea.

3.- Espediente administratiboen instrukzio-agintariak kontu-hartze judiziala baino lehen hartutako kautelazko neurriak indarrean egon daitezke agintari judizialen berriazko pronuntziamendurik ez dagoen bitartean.

V. TITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

28. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak

1.- Arau-hauste administratibo izango dira jarraian aipatutako legeetan hala tipifikatutako jarduera eta ez egiteak: animalien babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta Euskadiko osasun antolakuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean tipifikatutakoak. Baita Ordenantza honetan jasotakoak ere, udal gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gehitutako apirilaren 2ko 7/1985 Legeko XI. tituluaren xedatutakoaren arabera.

2.- Arau-hauste administratiboak artikulua honetako aurreko idatz-zatian aipatutako araudiak xedatutakoaren arabera zehatuko dira, lege-haustek modu zuzenagoan identifikatzeko eta zehapenak modu doiagoan zehazteko, Ordenantza honetan jasotako lege-hausteen espezifikazioen eta zehapenen graduazioaren kaltetan izan gabe.

1. atala.- ANIMALIEN BABESA

29. artikulua.- Arau-haustek

1.- Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Ordenantza honetako eginbeharrak ez betetzea, horrek hiritarren higiene, segurtasun edota lasaitasunarentzat transzendentzia larririk ez badu.
- b) Zentsuan identifikaziorik gabeko konpainiako animalien jabe izatea, identifikazio hori galdagarria denean.
- c) Animalien garraioa, Ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe.
- d) Animaliak arreta eta zaintza egokia eskaini ezin zaizkien lekuetan edukitzea.

- e) Animaliak euren izaerarako berezkoak ez diren jarduera edo jokabide desegokietara edo tratu laidogarrietara behartzea.
- f) AIEOari zentsurako identifikazioaren berri edota, ekainaren 1eko Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretuko 3. artikuluan jasotakoaren arabera, txakurren zentsuko identifikazioan izandako aldaketak ez jakinaraztea.

2.- Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Animaliak beharrezko janari, edari eta osasun laguntzarik gabe izatea edo euren beharrian fisiologiko eta etologikoetarako espazio aldetik eta arlo higieniko-sanitarioan egokiak ez diren instalazioetan edukitzea.
- b) Albaitariaren kontrol gabe edo, bereziki, animaliak babesteko eta garapen araei buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz animalia esterilizatzea, mutilatzea edo sakrifikatzea.
- c) Animaliari txertorik ez jartzea edo egin beharreko tratamendurik ez egitea.
- d) Baimen gabe animaliak saltzea.
- e) Animaliei tratu txarrak eman edo eraso egitea, alferreko sufrimendua, lesioak edo mutilazioak eraginez.
- f) Animaliei, zuzenean edo janarien bitartez, sufrimendua edo alferreko kalteak eragin liezazkiekeen substantziak ematea.
- g) Kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea.
- h) Hiri barruko bide, esparru, gune publiko eta antzekoetan, bai eta higiezin kolektiboetako toki komunetan ere, txakurrak kontrol gabe ibiltzea, animalia-aren ezaugarrietarako kate edo uhal egokiarekin eutsi gabe, edo uhal hori bi metrokoa baino luzeagoa izanik.
- i) Animalien min edo sufrimendu larri eta agerikoetarako, albaitariaren beharrezko laguntza ez eskaintzea.
- j) Dagokien baimen administratibo gabeko ikuskizunetan animaliak parte hartzera behartzea.
- k) Hiru arau-hauste arin egitea, ebazpen irmo bidez zehapena ezarri zaizkienak, zehapen-espientearen hasi den egun aurreko bi urteetan.

- l) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 5.1 eta 2. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, azalerako metro koadro bakoitzean txakurrak edukitzearen ratioari buruzkoan, eta artikuluko horretan aipatutako ibilgailu eta lokaletan txakurrak sartu eta egoteari buruzkoan.
- m) Ekainaren 1eko 10/2004 Dekretuko 7. artikuluan animaliak edukitzeko baldintza berezietara behartutako txakurrentzat ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.
- n) Establezimenduek animaliak aldi baterako mantentzeko, hazteko edo salerosteko urriaren 29ko 6/1993 Legeko, animalien babesari buruzkoan, edo hango garapen arauetan ezarritako betekizun eta baldintzak ez betetzea eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolerako azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuarekin bat, honako egoeraren batean egotea:
 - 8. artikuluan aipatutako erregistro libururik ez edukitzea.
 - Erregistro liburuak guztiz bete gabe edo datu batzuen faltan edukitzea.
 - CITES araudia edo aplikagarri den beste edozeinetan ezarritakoa bete gabe, animalia-espezieak saldu, eduki, trafikatu, salerosi eta erakustea.
 - Dekretu honetan aipatutako establezimenduak irekitzeko baimenik ez izatea, edo baimen hori iraungita izatea.
 - Erregistroari ez jakinaraztea establezimenduan edo zentroan egindako aldaketak.
 - Ikuskaritzaren lanari traba egitea edo lan hori egiten ez uztea.

3.- Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Animalia hiltzea, erasoz edo substantzia toxikoak eman izanaren ondorioz.
- b) Etxe-aberea edo konpainiako animalia abandonatzea.
- c) Simulatu gabeko krudeltasuna, tratu txarra edo sufrimendua erakusten duten eszenak filmatzea zinema edo telebistarako.
- d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak eta beste produktu batzuk ematea haiek mantsotzeko, errendimendu fisiko handiagoa erakutsi dezaten edo berezko jokaeraren aurkakoa den beste edozein helbururekin.
- e) Txakur-arraza arriskutsuak hazi edo gurutzatzea.
- f) Pozoitutako janariak bide eta espazio publikoetan uztea.
- g) Animaliak debekatutako ikuskizunetan parte hartzera behartzea.

- h) Hiru arau-hauste larri egitea, ebazpen irmo bidez zehapena ezarri zaizkienak, zehapen-espedientea hasi den egun aurreko bi urteetan.

30. artikulua.- Zehapenak

1.- Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-haustekak honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

- a) Arau-hauste arinetarako isuna: 30,05 €-tik 300,51 €-ra.
- b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.
- c) Arau-hauste oso larrietarako isuna: 1.502,54 €-tik 15.025,30 €-ra.

2.- Zehapenen zenbatekoak urtero eta automatikoki gaurkotuko dira kontsumorako prezioen adierazlearen arabera, adierazle hori aurreko urteko zehapenen zenbatekoei aplikatuko zaielarik.

3.- n) idatz-zatian araututako arau-hauste larriak azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

31. artikulua.- Zehapen erantsiak

1.- Zehapen-ebazpenak aginduko du arau-hausteari dagokion animalia konfiskatzea, animalia osotasun fisikoa bermatzeko hala egitea beharrezkoa balitz.

2.- Konfiskatutako animaliak hartarako egokitutako instalazioetan zainduko dira eta hirugarren batzuek lehentasuna izango dute animalia norbaiti uztekoan. Beste aukerarik ez dagoenean baino ez dira hilko.

3.- Arau-hauste larri eta oso larrietarako batzordeak instalazio, lokal edo establezimenduen aldi baterako itxiera agindu ahal izango du, gehienez bi urterako arau-hauste larrien kasuan eta lau urterako oso larrien kasurako. Gainera, gehienez lau urteko epean beste animalia batzuk eskuratzeko debekua ere eska dezake.

4.- Hiru urte baino lehen beste arau-hauste oso larriren bat eginez gero, baimen administratiboa galtzea ekarriko du.

32. artikulua.- Zehapenen mailaketa

1.- Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

- a) Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.

- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arau-haustetik irabazitakoaren zenbatekoa.
- c) Arauak hausten segitzea. Zehapen-espeditentea abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.
- d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota ezgaitu psikikoen aurrean egin izana.

2.- Antzera ezarriko dira, posible den neurrian eta dagokion arlo administratiboko berezitasunek eskatutako matizazio eta egokitzapenekin, zuzenbidearen aurkakotasunetik eta erruduntasunetik salbu geratzeko zigor-arauak, arlo horretan adierazgarriak diren beste inguruabar batzuei erantzutearen kaltetan izan gabe, efektu berdinetan.

3.- Gertakari berberak arau desberdinetan tipifikatutako arau-hauste administratibo bi edo gehiago eragiten dituzten kasuetan, zenbateko handiena dagokion isuna ezarriko da, eta espeditentea izapidetzeko eta ebazteko eskuduna zehatzeko ahala duen organoa izango da.

33. artikulua.- Zehatzeko eskumena

1.- Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/93 Legean araututako foru organoen zehatzeko eskumenaren kaltetan izan gabe, Ordenantza honetan xedatutako arauaren bat hautsiz gero, arau-hausteak udalak zehatuko ditu.

2.- Indarrean dagoen legeriak udalei emandako ahalmenen barruan, alkatetza-lehendakaritza izango da arintzat tipifikatutako arau-hausteak abiarazi eta ebazteko organo eskuduna.

3.- Udal osoko bilkura izango da larritzat tipifikatutako arau-hausteak ebazteko organo eskuduna.

4.- Foru organo eskuduna izango da oso larritzat tipifikatutako arau-hausteak zehatzeko organo eskuduna.

5.- Alkatetza-lehendakaritzaren esku utziko da larritzat tipifikatutako arau-hausteentzako zehapenak ezartzeko eskumena.

34. artikulua.- Kautelazko neurriak

1.- Lege-hausteak delitu edo hutsegite izan daitezkeenean, zehapena ezartzeko eskumena duen organo administratiboak jakinaraziko dizkio gertatutakoak jurisdikzio penalari, eta zehapen-prozedurarekin jarraitzeari uko egingo dio ebazpen judizial irmoa ebazten ez den bitartean eta, orduan, ordura arte etengo da preskripzio-epea.

2.- Espediente administratiboen instrukzio-agintariak kontu-hartze judiziala baino lehen hartutako kautelazko neurriak indarrean egon daitezke agintari judizialen berariazko pronuntziamendurik ez dagoen bitartean.

3.- Zehapen-espedientea abiarazi ondoren, eta beste arau-hauste batzuk ekiditearren, espedientearen instruktoreak, arrazoibidez, kautelazko honako neurri hauek hartu ahal izango ditu:

- a) Lege honetan debekatutako suposamenduetakoren bat jasan izanaren zantzuak dituzten animaliak prebentzioz kentzea eta, animaliak biltzeko zentroan sartu ondoren, zaintzea.
- b) Instalazio, lokal edo establezimenduen prebentziozko itxiera.

4.- Eragin zituzten arrazoiek iraun bitarteko indarraldia izango dute kautelazko neurriek baina, hala ere, kendutako animaliak ez dira egoera horretan egongo espedientearen ebazpen irmoa baino luzeago, eta itxierak ere ez du iraungo animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeko 29.2. artikuluan ezarritako epearen erdia baino luzeago.

35. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteez, arinak badira, lau hilabetera preskribituko dute, larriak badira urtebetera, eta oso larriak badira bi urtera.

2.- Arau-hausteen preskripzio-epea arau-huste egunetik bertatik kontatzen hasita zenbatuko da.

3.- Zehapenek bost urtera preskribatuko dute zenbatekoa 305,00 €-koa edo handiagoa denean eta urtebetera zenbatekoa txikiagoa bada.

4.- Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezarri duen ebazpenak irmotasuna lortzen duen egunetik hasita zenbatuko da.

2. atala. ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK

36. artikulua.- Arau-hausteak

1.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen arabera, arau-hauste administratiboak izango dira bertan tipifikatutakoak.

2.- Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Arriskutsua izan daitekeen animalia abandonatzea, edozein espezietakoa eta edozein txakur dela ere. Animalia abandonatutzat hartuko dira bai nahitaezko identifikazioa dutenak bai jatorria edo jabeari buruzko inolako identifikaziorik ez dutenak, betiere inor barik badabilta.
- b) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edo animaliak baimen gabe edukitzea.
- c) Arriskutsua izan daitekeen txakurra edo animalia edozein titulugatik saldu edo transmititzea baimenik ez duen norbaiti.
- d) Animaliak trebatzea, euren agresibitatea aktibatzeke edo debekatutako zerbaitetarako.
- e) Hartarako trebakuntza-egiaztagiririk ez daukanak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak trebatzea.
- f) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliekin lehiaketak, ariketak, erakusketak eta ikuskizunak antolatu eta eratzzea, edo eurretan parte hartzea, animalien agresibitatea erakusteko eratu badira.

3.- Arau-hauste larriak dira:

- a) Arriskutsua izan daitekeen animalia aske uztea edo animaliak ihes egin ez dezan edo galdu ez dadin beharrezko neurriak hartu ez izana.
- b) Animalia identifikatzeko eginbeharra ez betetzea.
- c) Erregistroko identifikazioari ezikusia egitea.
- d) Arriskutsua izan daitekeen txakurra leku publikoren batean aurkitzea muturreko gabe edo sokarekin lotu gabe.
- e) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak garraiatzea, 50/1999 Legeko 10. artikuluan xedatutako arauak urratuz.
- f) Agintari eskudunek edo haien agenteek eskatutako datuak edo informazioa emateari uko egin edo eragozpenak jartzea, 50/1999 Legeak ezarritako funtzioak betetzen dihardutenean, edo emandako informazioa okerra izatea edo dokumentazio faltsua erakustea.

4.- Arau-hauste arinak izango dira abenduaren 23ko 50/1999 Legeko arauak urratzen diren kasuak, aurreko idatz-zatietan jasotakoetatik kanpo geratzen badira, batez ere honako kasu hauek:

- a) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak bide eta espazio publikoetan edukitzea, animalio berarekin batera daramatzana edo kontrolpean dituen

udal lizentzia gabe eta animaliak erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiri gabe badago.

- b) Arriskutsuak izan daitezkeen txakur bat baino gehiago erabiltzea pertsonako bide eta espazio publikoetan.
- c) Txakur arriskutsuak edukitzea kale eta espazio publikoetan 2 metro baino luzeagoa den uhal edo kate luzagarriarekin.
- d) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak barruan dituzten instalazioetarako ezarritako segurtasun neurriak ez betetzea.
- e) Animaliaaren osasun egiaztagiria urtero ez aurkeztea.

37. artikulua.- Zehapenak

Aurreko idatz-zatian adierazitako arau-hausteei dagozkien isunak hauek izango dira:

- Arau-hauste arinak, 150,25 eurotik 300,51 eurora.
- Arau-hauste larriak, 300,52 eurotik 2.404,05 eurora.
- Arau-hauste oso larriak, 2.404,06 eurotik 15.025,30 eurora.

38. artikulua.- Zehapen erantsiak eta kautelazko neurriak

1.- 29. artikuluan tipifikatutako arau-hausteei erantsitako zehapenak honakoa ekar dezake: arriskutsuak izan daitezkeen animaliak konfiskatu, dekomisatu, esterilizatu edo hiltzea, establezimenduaren itxiera eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia edo trebatzaile-egiaztagiria aldi baterako edo behin-betiko baliogabetzea.

2.- Arau-hausteak delitu edo hutsegite izan daitezkeenean, eskumena duen agintaritzak animalia kentzeko erabakia har dezake agintaritza judizialak erabakia hartu bitartean, baina berehala jakinaraziko beharko zaio eskumena duen jurisdikzio-organoari horren guztiaren berri.

3.- Eskumena duen agintaritzak arriskutsua izan daitekeen edozein txakur kautelaz kontu-hartu eta aurreikusita daukan bilketa-zentrora eramango du, jabeak ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan jasotako neurriak betetzen ez baditu.

39. artikulua.- Zehatzeko eskumena

1.- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak izango du eskumena trebatzeko gaitasunaren egiaztagiriarekin eta trebatzaileak prestatzeko ikastaroen homologazioarekin zerikusia duten arau-hausteetan.

2.- Alkatetza-lehendakaritzak izango du eskumena gainerako beste arau-hauste guztietan. Eskumen-lurraldetik kanpo geratu bada, eskumena Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak izango du.

3. atala. HONDAKINAK

40. artikulua.- Arau-hausteak

Apirilaren 21eko 10/1998 Legearen arabera, honako hauek dira arau-hauste administratibo arinak, animaliei dagokienez:

- a) Animalien gorozkiak uztea kale eta plaza publikoetan, haur-parkeetan, lorategietan eta, orokorrean, apaingarrirako edota pertsonen joan-etorrirako diren lekuetan.
- b) Bide publikoan eta orubeetan janaria ematea hegazti, txakur, katu eta kaleko beste edozein animaliar hartarako berariazko baimenik gabe.

41. artikulua.- Zehapenak

Aurreko artikuluan adierazitako arau-hausteak 601,01 €-ra arteko isunarekin zehatuko dira.

42. artikulua.- Zehatzeko eskumena

Alkatetza-lehendakaritza izango da zehapenak ezartzeko eskumena daukan organoa.

4. atala.- OSASUN ANTOLAMENDUA

43. artikulua.- Arau-hausteak

Euskadiko osasun antolamenduari buruzko 8/1997 Legeko 36.2.b.1 artikuluaaren arabera arau-haustea da erasoren bat eragin duen animalia albitari ofizialak edo gaituak animalia hori behatzeko errekerimendua, eskumena duen udal organoak agindutakoa, edo hartzen diren kautelazko neurriak ez betetzea.

44. artikulua.- Zehapenak

Aurreko artikuluan adierazitako arau-hausteak 3005,06 €-tik 15.025,30 €-ra bitarteko isunekin zehatuko dira, eta zenbatekoak ekainaren 26ko 8/97 Legeko 37.1 artikuluan xedatutakoaren arabera mailakatuko dira.

45. artikulua.- Zehatzeko eskumena

Alkatetza-lehendakaritza izango da zehapenak ezartzeko eskumena daukan organoa.

5. atala.- ORDENANTZAKOA HAUSTEA

46. artikulua.- Arau-hausteak

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko XI. tituluaren jasotakoaren babesean, gobernu lokala modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak erantsitakoaren babesean, arau-haustea izango dira honako hauek:

- a) Ordenantza honetan bildutako eginbeharrak, debekuak edo mugak ez betetzea, arloko berariazko araudian tipifikatu ez direnak, arau-hauste arina izango dira.
- b) Hiriko fauna kontrolatzearekin zerikusia duten jardueretan udal zerbitzuen funtzionamenduari traba egitea arau-hauste arina izango da.
- c) Animaliak edukitzearen ezaugarriei buruzko informazioa ez eman edo dokumentazioa ez erakustea, edo udal agintaritzak eskatu ondoren animalia euren esku ez uztea, ordenantza honetako 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, arau-hauste larria izango da.

47. artikulua.- Zehapenak

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak honako isun hauekin zehatuko dira:

- Arau-hauste oso larriak: 3000 €-ra arte
- Arau-hauste larriak: 1.500 €-ra arte
- Arau-hauste arinak: 750 €-ra arte

48. artikulua.- Zehatzeko eskumena

Alkatetza-lehendakaritza izango da zehapenak ezartzeko eskumena daukan organoa.

6. atala.- ZEHATZEKO PROZEDURA

49. artikulua.- Prozedura

Titulu honetan erregulatutako arau-hauste guztietarako zehapen-prozedura administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, araututako zehatzeko ahalmenaren printzipioetara doituko dira eta, aurreko ataletan adierazitako xedapen bakoitzari dagokion araubidearen jatorria zein den arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea ezarriko da,

edo zehatzeko ahalmena erabiltzeko prozeduraren erregelamenduari onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua.

50. artikulua.- Prozesu penalarekin konkurrentzia

1.- Instrukzio-egileak, prozedurako edozein unetan, uste badu instrukziopean dauden gertakariak legez kontrako izaera penala izan dezaketela, ebazteko eskumena duen organoari emango dio horren berri. Organoak bidezkozat jotzen badu instrukzio-egilearen ustea, Ministerio Fiskalari jakinaraziko dizkio gertakari horiek, eta instrukzio-egileari eskatuko dizkio egindako jarduketei buruzko argibideak.

Halaber, prozedura administratiboak biltzen dituen gertakarien gainean prozesu penala egiten ari dela jakin ondoren, Ministerio Fiskalari eskatuko zaio egindako jarduketei buruzko jakinarazpena. Bestalde, prozedura administratiboak biltzen dituen gertakarien ondoriozko gertakarien gainean prozesu penala irekita dagoenean ere, horrelako beste jakinarazpen bat eskatu zaio Ministerioari.

2.- Ministerio Fiskalaren jakinarazpena jasotakoan, prozedura penala ebazteko eskumena duen organoak prozedura etetea erabakiko du, harik eta epaileek behin betiko ebazpena eman arte.

3.- Administrazioko prozedura penala eten arren, kautelazko neurriek beren hartan jarraitu ahal izango dute, betiere bateragarriak badira prozesu penalean hartutako neurriekin. Hala ere, neurri horiek ez dira bateragarritzat joko, baldin eta kautelazko neurri penalak nahikoak badira administrazioko prozedura penalean aintzat hartutako kautelazko helburuak lortzeko.

Ministerio Fiskalari jakinarazi beharko zaio kautelazko neurriak hartzeko edo beren hartan jarraitzeko egintza.

4.- Nolanahi ere, epaileek ebazpen irmoan frogatutzat jotako gertakariak lotu egiten dituzte organo administratiboak, bideratzen diren prozedura penalei dagokienez.

Administrazioak ofizioz berraztertuko ditu ebazpen penalean frogatutzat jotako gertakarietan oinarritzen ez diren ebazpen administratiboak, eta bat egin beharko du ofizioz berraztertzeko prozeduren arauekin.

51. artikulua.- Jakinarazpena AIEOari.

Zehatzeko eskumena duten organoek AIEOari bidaliko diote zehapen-prozedurari amaiera emango dion ebazpenaren kopia bat.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honen aurkako ordenantza, erregelamendu eta udal bando guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen denetik hamabost lanegunera sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIAK UZTEKO DOKUMENTUA

Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeko 16. artikuluan eta animaliak eduki eta babestea arautzen dituen udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, animalia **aldi bateko utziko zaio** honako honi:

Jaun/andrea: _____ NAN: _____

Helbidea: _____ Lurraldea: _____

Kalea: _____ Telefonoa: _____ emaila: _____,

identifikaziorik ez daukan animalia hau, erregistro zk.: _____ eta ezaugarri hauek dituena:

Arraza: _____ Kapa _____ Kolorea _____ Sexua _____

Gaitasuna: _____ Gutxi gorabeherako adina: _____

Zentrora sarrera-eguna: _____

Behean izenpetu duenak hitz eman du animalia zaintzeko eta zentrora itzultzeko hala eskaintzen bazaio, beste hirugarren pertsonaren batek animaliaaren legezko jabea dela frogatzen badu.

Era berean, animaliak eduki eta babesteko udal ordenantzako 5-1 eta hurrengo artikuluetan ezarritako suposamenduetan, zentro honetara etorriko dela hitz eman du animalia ofizioz identifikaziorako mikrotxipa ezarri diezaioten, animalia zentroan sartu den egunean kontatzen hasi eta hilabeteko epean, edo beste albaitaritzaren zentro edo klinikaren batean ezarri diotela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkez dezan.

_____, _____(e)ko _____aren _____(a).

Irakurrita eta onartuta: _____
(animalia utziko zaion pertsonaren sinadura)

II. ERANSKINA

AGRESIOA GERTATZEAN ANIMALIA BEHATZEKO DERRIGORREZKOTASUNAREN JAKINARAZPENA

Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat, udalek, beste batzuen artean, gizakiren bat eraso duten animaliak isolatu edo internatzeko agindua eman behar du animalia behatua izan dadin.

Era berean, animaliak eduki eta babesteko udal ordenantzako 11. artikuluan xedatzen du lesioak eragin dituen animalia jabeak edo edukitzaileak jarraitu behar duen prozedura eta prozedura horri ez jarraitzeari dagokion zehapena.

Goikoarekin bat, honako hau jakinarazten zaizu:

Lehenengoa:

Lesioa eragin duen animalia jabearen edo edukitzailearen datuak:

_____ jaun/andrea

udalerrria: _____

kalea: _____, zk.: _____

NAN: _____ Tel.: _____

Animalia identifikazio zk. (*hartara behartuta dauden animaliak*): _____

arraza: _____

Goialdean zehaztutako jabe edo edukitzaile horri jakinarazten zaizu, 24 orduko epean zuk zeuk aukeratutako albaitari ofizial edo gaitu batek animalia hamalau egunetan behatu behar duela. Behaketaldia bukatzean, 48 orduko epea izango duzu, _____ko udaleko _____ (a)ri albaitariaren txostena bidaltzeko.

Bigarrena: Edozein argibide edo informazio gehiago jasotzeko, jo _____ko udaleko _____(a)rengana, _____ (helbidea) edota _____ telefonora deitu.

_____, _____(e)ko _____aren _____(a).

Irakurrita eta onartuta: _____

(animalia jabe edota edukitzailearen sinadura)

III. ERANSKINA

ANIMALIA HOZKATZAILEARI BURUZ ALBAITARIAK EGINDAKO TXOSTENA

Albaitaria:

Elkargokide zk.:

Helbidea: Tel.

ANIMALIAREN DATUAK

Jabea		NAN	
Helbidea		Udalerria	Telefonoa
Espezia	Identifikazioa	Izena	Arraza
Adina	Sexua	Erantzukizun zibilerako aseguru	

EGIAZTATZEN DUT:

Aipatutako animalia zaindu eta behatu dudala eta ez diodala gaixotasun zoonosikoen inolako sintomarik ikusi eta, beraz, zainketa eta behaketaldia amaitutzat eman dudala. Behaketaldiaren egunak: _____

Sinadura eta zigilua

Toki-egunak:

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2006ko apirilaren 26an egindako osoko bilkuran onetsi zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2006ko apirilaren 28an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen testu osoa 2006ko uztailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (133 zk.) argitaratu zela, eta 2006ko abuztuaren 3an sartu zela indarrean.

Zarautzen, 2006ko abuztuaren 4an
Idazkaria